Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko azaroaren 7a, osteguna — 215 — Jueves, a 7 de noviembre de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## EIBARKO UDALA

*Langile laboral finkoa kontratatzea Eibarko Udaleko kirolaren, jarduera fisikoaren eta bizimodu osasuntsuaren saileko kirol instalazioetako Atezain plaza bat betetzeko.*

Gobernu Batzarrak 2022ko abenduaren 1ean Eibarko Udaleko kirolaren, jarduera fisikoaren eta bizimodu osasuntsuaren saileko kirol instalazioetako atezain plaza bat merezimendu-lehiaketa bidez hornitzeko onartutako oinarri orokorrak eta espezifikoak 2022ko abenduaren 21ean argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta oinarri orokor horien zuzenketa 2023ko maiatzaren 31n argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

2024ko otsailaren 19an *Estatuko Aldizkari Ofizialean* deialdiaren laburpena argitaratu zen, eskabideak aurkezteko epea zabalduz.

Merezimenduen balorazioa amaituta, azpian zehaztutako pertsonak lan-kontratu finkoa sinatzeko proposamena egin zion Batzorde Iraunkorrak Alkateari:

— Susana Gonzalez Sobrino andrea.

Proposatutako izangaiak deialdiaren oinarrietan ezartzen diren parte hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatu du.

Hori guztia kontutan hartuta, 2024ko urriaren 30ean sinatutako alkatetza ebazpen bidez ebatzi da:

*Lehena.* Susana Gonzalez Sobrino andrea kontratatzea Eibarko Udaleko langile laboral finko, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoaren arabera, honako plaza betetzeko:

— *Plaza:* Kirolaren, jarduera fisikoaren eta bizimodu osasuntsuaren saileko kirol instalazioetako atezaina.
*Azpitaldea:* LT.

*Bigarrena.* Erabaki honek eragina izango du kontratua sinatzen den egunetik hasita, alegia, erabaki hau interesdunari adierazi eta ondorengo hogeita hamar egun balioduneko epearen barruan.

*Hirugarrena.* Kontratuan bi hilabeteko probaldia ezartzea.

*Laugarrena.* Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Eibarko Udaleko web orrian argitaratzea.

*Bosgarrena.* Langileari eta sindikatuei jakinaraztea.

Akordio honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazio Auzietarako Epaitegian, iragarki hau jakinarazi edota argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epe barruan, bidezkotzat jo daitekeen beste edozein errekurtso jartzeko eragozpenik gabe.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi erre kurtsoaren aurretik, berraztertze ko erre kurtsoa aurkez daiteke ebazpena eman duen organoaren aurrean, jakinarazi edota argitaratzen den unetik hilabeteko epean.

## AYUNTAMIENTO DE EIBAR

*Contratación de personal laboral fijo para ocupar una plaza de Conserje de instalaciones deportivas del departamento de deporte, actividad física y vida saludable del Ayuntamiento de Eibar.*

La Junta de Gobierno de 1 de diciembre de 2022 aprobó Las bases generales y específicas para la provisión por concurso de méritos de una plaza de Conserje de instalaciones deportivas del departamento de deporte, actividad física y vida saludable del Ayuntamiento de Eibar las cuales fueron publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 21 de diciembre de 2022 y la corrección de las bases generales se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 31 de mayo de 2023.

El 19 de febrero de 2024 se publicó en el *Boletín Oficial del Estado* el extracto de la convocatoria, abriendo el plazo de presentación de solicitudes.

Finalizada la valoración de méritos, la Comisión Permanente elevó al Alcalde la propuesta para que la persona abajo indicada firmara el contrato laboral fijo:

— Dña. Susana Gonzalez Sobrino.

La persona aspirante propuesta ha acreditado el cumplimiento de los requisitos de participación establecidos en las bases de la convocatoria.

En base a todo ello, por resolución de alcaldía de 30 de octubre de 2024 se ha resuelto:

*Primero.* Contratar a Dña. Susana Gonzalez Sobrino como personal laboral fijo del Ayuntamiento de Eibar de acuerdo con lo establecido en la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, para ocupar la siguiente plaza:

— *Plaza:* Conserje de instalaciones deportivas del departamento de deporte, actividad física y vida saludable.
*Subgrupo:* AP.

*Segundo.* Que el presente acuerdo surtirá efectos desde la firma del contrato que se efectuara dentro del plazo de treinta días hábiles siguientes a la notificación del presente acuerdo a la interesada.

*Tercero.* Establecer en el contrato un periodo de prueba de dos meses.

*Cuarto.* Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento de Eibar.

*Quinto.* Notificar a la trabajadora y a los sindicatos.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo y pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo o cualquier otro recurso que se estime procedente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación y/o publicación.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado anteriormente, contra este acuerdo se podrá interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que lo ha dictado, en el plazo de un mes, que se contará desde el día siguiente al de su notificación y/o publicación.

EK\CV GAO-I-2024-07957

Eibar, 2024ko urriaren 30a.—Jon Iraola Iriondo, alkatea.
(7957)

Eibar, a 30 de octubre de 2024.—El alcalde, Jon Iraola Iriondo.
(7957)

EK\CV GAO-I-2024-07957